


ANAITASUNA

X URTEA N.º 116
Dep. Legal, SS. 1092-1959
Suplemento de la Hoja
Anaitasuna de Guipúzcoa
AGOZTUA (8) 1964

BEROA! Bero asko egiten dauala-ta, onen-onena “koka-kola” bat artu edo, Uriona-tarra bazara, obeto “kas” bat. Edo, erdi-billoizik ibilli, tela meez jantzita. Beñik-bein, lanazkorik ez eroan, izerdirik ez badozu gura bota. Edo, beste zer bat be ba-dago: iñoiz otuten bajatzu, eskerrak emon zure Jaungoikoari beroagaitik. Iñoiz egin dozu ori? Ba, nire ustez, beroa gogo onez eroateko, orixe da onena. Askotan “kas” batek ez deutsu ezer-be egiten; erdi-billoizik ibilteko be, kontuz ibilli bear dozu, arriskuak dagoz-eta... A! Baiña, nok galerazoko deutsu eskerrak emotea Jaungoikoari berak emondako beroagaitik?

ITXAS-ONDARTZAK! Beste batzutan, bero asko egiten dauanean, onen-onena auxe izaten da: itxas-ondartza batera joan, eguzki ederra artu, astiune txiki batean uger egin, eta gero apetitua irigi, etxeko indiabak jateko. Jen-



te askok egiten dau ori, bai gizonetzko eta bai emakumeak be. Zergaitik, barriz, deadar egiten dabe abadeak pulpituetatik itxas-ondartzen kontra? Um! Zeozer ibilli bear da, bai, okerreko bidetik! Bai ete dakigu kristiñauok playa batera joaten? Ezta gatxa, ba, gizona! Kaletik zoazenean, auto batek zapaldueteko arriskuan zagoz; etxe barruan zagozanean, etxea beera etorrita, il zorian egon zaitezke; itxas-ondartza batera zoazenean, barriz, bertan itota geratu zaitezke. Kontuz ibilli, ba! Peligroren bat ikusten dozu-nean, —ba-dagoz animaren peligroak!— kontuz ibilli, ta listo!

agoztua ta...

URA! Antxiñako filosofoak esaten eben ura zala gauza guztien sustraia, gauza guztien barru-barruan ura aurkitzen zala beti. Eztakit orrenbeste dan edo ez, baiña badakit, udean batez be, ura derrigorrezkoa dogula, gorputzeko izerdia kenduteko batzutan, eta beste batzutan, beroa kenduteko, dutxa baten bidez edo uger-eginiik, itxasoa bera be ura da-ta. Begira, ba, zenbat irebaziko geunken udean, ura ikutu edo ikusten dogun bakoitzean, onagoak izateko asmoa artuko bagendu! Edo, asmoa artu bearrean, zeozer on bat egingo bagendu! Gure gorputzeko zikinkeri danak uretan itxiten dogun legez, zergaitik itxiten ez doguz gure animiako zikinkeri guztiak —gorrotoak eta lizunkeriak— udeko ille beroetan? Eurak eroan daiezala danak!


ERRI-JAIAK! Kanpotik ikusita beintzat, esan leiteke gazte askorentzat agoztua, ta ude osoa, erri-jaien atzetik ibiltea dala. Batek be ez deutse iges egiten. Ta... zer? Ondo dagola, gero, irailan, "kalabazak" ataraten ezpadabez barriro. Edo, gastu andirik egiten ez badeutsee gurasoeri! Ba, ez pentsa agoztua danik bizitzako ille azkenik. Agoztu ondoren, iraila dator; irailaren ondoren, urrengoa, ta... ondoren, zu, ta ni, ta bestea, ta... **JAUNGOIKOA!**

agoztua ta...

JOLAS- KETA

Gaurko gaztediak alako deporte zaletasun andia ba-dauko. Baño, nik uste, ekibokazio asko izan geunkez deporte kontuan. Deporteak, beste gauzak lez, bere bide edo neurriak baditu, ta zoritxarrez malla orretatik urten ezkerok makifia bat kalte erakarten dautsoz soziedadeari.

Argi esateko, gaurko deporte itxua dala esan geunke, ain zuzen be. Oingoiz ondotox jakifia izango dozue Argentina ta Peru'k izan eben futbol partidue, ta baita aren amai-era garratza... Negargarria ta lotsagarria benetan! Nik esango neuke ogeigarren mendeko deportearen mantxa baltzena dala, ta baita gure soziedadearen ezaugarria deporte kontuan.



Izan be, munduak asko aurreratu dau teknika ta beste arlo askotan, baño barruko pasifio ta griña gaiztoak zuzentzen ondifio antxiñako erromatar galduak letxe gabiltza. Ondo jakifia, aurrerapenak ez dauz gizon zuzenak ataritzen, ta askotxotan bai galdu.

Non dago, ba, deportearen errotasuna. Deportea gizona entreteniduteko besterik ezta. Badituz gizonak astean zear lan askotxo ta bear-bearrezko dau sarritan eskape moduko tresna bat. Beraz, eskape oso ona dala uste dot deporteak. Au deportearen ofarri edo base sakona: gizonaren ona. Gauza, ta askotan gatxa, ofarri onen deretxoak ez askatzea izaten da.

Danok izaten doguz faboritoak, ta au be oso libre dala esan bear. Baño faboritoaren gañetik persona guztion dinidada da ziur, ta ifortxok eztauko deretxorik besteen gustoak kritikatzeko, ta sarritan ez kritikatu bakarrik... baita lorrindu egiten dira.

Mendi tarteko sakonunetik
errekastoa jausika joian;
aren ispillu txukun-garbitan,
lumaz eindako kabi antzean
apar mordoska ikusi zeitean.

Txepetxak, goitik begiratuta,
bits pillo aura oetzat artu zun;
an dator egaz errekarantza,
sasi oe artan murgildu yakun;
bere gogara lo ein gurariz,
"kabi" barruan bai pozik sartu.

Txepetx gaizoa! Begi guzurtik
kabitzat zeukan apar mordoska
erditik ausi, ta beingo baten,
errekastoko ur otz artean
txori txikerra betiko ondatzen
ikusi gendun, biotz oiñazez.

Zenbat olakok, gaurko munduan,
itxuraz eder, azalez txukun,
begiz jotean ager yakutzan!
barrutik, barriz, bitsa, ezer ez;
kanpotik argi, barnetik illun,
giza-gogoa galtzeko izkillu.

(Arrugain)



Bitsa

ezer

e2

ELIZA ITXASOAN

Itxaso arazoetan, gaurtik gaur, aitortu bear da, atzeratuta dabillega Eliza, toki geienetan, beintzat.

Lenengo batean, ezan egiten askorik. Ezan ikusten be prolema askorik ez andirik. Gaur, barriz, beartasunak asko geitu dira, ta prolema orreek azaletik baiño eztozuz begiraturen, mamiña beste bat da.

Zeozer egiteko asmoa artu ezkeru, ezin da batzutan portura joateagaz bakarrik konformatu. Ori, arraiñari ura emotea izango litzake. Arrantzaleen bizitza, ezta igaroten portuan. Portuan be bai, baiña ez bertan bakarrik. Aldi geiena itxasoan bertan egiten dau arrantzaleak. Orregaitik, ondoan datoarren konklusioña auxe da: Eliza bera itxasoratutea.

Beste batengandik entzutea baiño oba litzake, ta oba da, artez ikusi gauzak itxasoan bertan. Esango da ze, arrantzaleak berak erakutsi bear deutzazola bere prolemak Elizari. Pio XII-gnak diñonez: "Arrantzalea bera izan bear da apostolu jatorra." Baiña, arrantzaleak, askotan, ezin dauz itxasoan sortzen diran egoerak ondo agertu, ta ezta egoera oneek arrantzaleen barruan biztuten dabezan sentimendu guztiak.

Arrantzaleak eurak diñoenez, arrantzale guztiakaz batera biar egitea ezta ain onuragarria. Banakan-banakan ibiltea askoz be ohea da. Personak eztira iñoiz be animaliak

lez erabili bear. Eta, arrantzaleak danak batera artutean orixe baiño eztozuz egiten.

Arrantzaleeri, bakoitxari, sarritan, itxura txarra eukita be, gustaten jake bai ondo begiratuak izatea. Eta geiago begirada au Elizaren partetik bada.

Elizkizun kontuetan, azkatasun osoa nai dau. Izan dira, or-emen, iñoiz obligazioak paloka bete arazi egin dabezanak. Eztago ori baiño txarragorik gauzak aldrebestuteko. Lendik be naiko dabilta naste-borrasteak armadoriak eta tostartekuak dirala-ta...

Elizak ba ete dauko errurik oraindiño ain txarto dagoazen gauza oneetan?


Artez esateko, eztauko euki errurik orreetan, baiña Elizak eztaki geienetan egoera penagarri orreen barririk.

Ba-da ordua, tostartekuentzako dagozan antziñoak legeak barrituteko. Asuntu one-tan, armadoreak eurak konturatu bear dira gauko bizitzak eskatuten dabezanakaz.

Elizaren soluzioña gizonaren deretxoagaz batera doa. Ortik, gizonaren deretxoak kontuan artu bearra, eta ez bakarrik kontuan izan, euregatik gogotsu ta artez jokatu baiño, erdikieriak manda batera botata.

Oraindiño ezta ikusten Eliza ain ondo itxasoan, eztagolako ondo kakotua.


Elizaren zintzotasuna, arrantzale bakoitxaren zintzotasunagandik dator.



Mundu kua

Ezin geinke egon geidi! Kia! Ezta pen-be! Gaur Paris-en bagagoz, biar Pekin arkitzen gara eta areiñegun Australia-geuezan, gaur etxian topaten gara. Ezta arutz-onutz ibiltea bakarrik gaur iten doguna, kulturaliak be jigantearen-
soak artu ditu.

Egunerokoak, errebistak, irakurgaiak, ta dioa, zinea, televisioa. Mundua etxian. Na tea etxian. Oraindiño berrogetamar urte tira 100.000 eguneroko ateraten zirela. gon erradorik. Ezta telebisorik be. G 220 milloi eguneroko baiño geiago ater



EKKONDU
TA

entira. Zineak arnasa artu ezin leiken beste
beteten dira.

Ertia, jakituria, olerkia masa guztien kul-
tura da. Egizko errebuluzioa! Industria-
leko errebuluziñogan baiño berba gitxiago
egingo da, baña garrantzi geiago dauko.

Ipiñi erradioa, zer entzuten dozue? "Bio-
tza, biotza..." "Ai nire amodioa"... Joan zi-
nera, zer ikusten dozue? Marilyn Monroen
edo Sofia Loren-en ipurdikerak. Erosi li-
buru bat, zer irakurten dozue? "Begi urdi-
hezko neskatxa"... "Azkenengo mosua". Ar-
tu illeroko bat, zer dauko? Onen edo aren
neskatxaren erretratu parregarri bat. Batu

onek danok, eta ze urteten deusue? Aragia.
Aragia. Aragia.

Eta gu, kristauok garanok, zelan egon
geinke besuak loturik munduko zirimirri ne-
gargarri au ikusita? Ezin geinke lukartu,
bestela galduak izango gara.

Kristiñauak!, gaurko munduari gogor el-
du bear deusagu gure atzamarretan, leiza-
zulo illunera jausi eztedin. Mundu obeagoa
pozez itxoin bear dogu. Bier asko egin ez-
kero, etorriko da. Gure mundu onek Jainko
bearra dau. Berak onbideratuko dau gure
laguntasunarekin.

Ikusi dagun zer bear daben landareak azi ta bizitzan indartzeko. Elementu asko artzen dabez beren bizitzarako, eta ia danak lurretik, zuztarren bidez. Lau dira bearrezkoenak: Nitrojeno, fosforo, potasa ta karea. Nekazariak beren lurak gozatzean, lau ongarri oneek emon bear deutseez, eta onela saiatzen da. Lau elementu oneek dira nagusienak eta lantzen diran lur klase guztietan egoten dira, eta bearko egon, lurak zeozer emongo badau. Besté elementuak be bear izaten dabez, eta badabe beren importantzia, baiño bere neurrian emotea oso-oso gatxa izaten da.

NITROJENO: Elementu onek landareak azi egiten dauz; landare mardul eta berde-illun dagozan tokian, nitrojeno ugari dagon

Nekazaritza-lurak

señalea. Eta onetatik lar egon ezkerro landareak azi asko azitzen dira baiño indarbakoak izateko arriskua dabe. Eta landare oneek, errez gaixotu ta ondatzen dira, azal bigunea dakeelako.

Nondik sortzen dan nitrojenoa? Onetxek dira iturririk nagusienak: lurreko materia bizia ta gatz mineralak. Zatza ta "humus" dira lurrari nitrojenorik geien emoten deutseenak. Baiño ongarri onek berez emoten deutesen ongarria ez da neikoa. Orregatik utsune au betetzeko nitrojenozko ongarri mineralak emon bear jakoz. Ongarri mine-



EZKONDU TA KITTO?

"Ezkondu ta listo". Sarrri entzuten dogun esaera okerra. Gaurko egunotako liburu asko leidu ezkerro, auxe berau pentsau leiteke, ba liburu orreetan ezkondu-takoan problema guztiak konpondu-ta geratzen direala esan geinke.

Ezkontza meta bat ala bizi modu barri baten asiera ete da ba? Meta izan daitean problemak be konpondu-ta itxi bear leukez. Baiña danok ondo dakigun lez, ezkondu ta gero problema aundienak eta garratzenak sortuten dira.

Meta moduan artu ezkerro, bizitz oso baten

meta bezelan be ezin leiteke izan. Geien-geienez, ezkongai denporaren meta. Ezkontza, ba, bizi-modu barri baten asiera baiño ezta. Ezkontza Sakramentu bat da. Sakramentuak zezertarako indarra emon bear dau, ta Sakramentu onetan, senar emazteak baktzak bere ta biek euren perfeziñoa lortzeko indarra.

Indarra zezerren asieran ezartzen da, oriegaitik Sakramentu au bizimodu forma barri onetan be. Sakramentu orren bitartez senar emazteak egunero ta batasun aundiangoan bizi bear litzakez, egunero "ezkonduago" bizi.

zer bear dau?



ral nitrojenozkoak, nitratozkoak ta amonia-kozkoak izan leike. Nitratozkoak errez ur-tzen dira ,eta bear dan moduan aprobetxatu barik, urak eroateko arriskua dauke.

FOSFORO: Nitrojenoa landareak azi egi-ten dabezala esan dogu. Fosforoak barriz in-dartu egiten dauz. Ongarri onegaz asetako lurreko frutuak, oso aundi ta mardulak izan ezta be, alimentu geiagokoak dira, gozo ta indartsuagoak. Eta frutu oneek alimentuta-ko persona ta ganaduak sanoagoak. Lur one-tako landareak gaxoak ez dabez ain errez jo ta ondatzen.

POTASA: Fosforoa lakoxea da au be lurrarentzat. Orrek be obeagotu ta indartu egi-ten dauz. Landare bigunak dagozen lekuan, potasa gitxi dagozan señailea. Au ez da edo-

zelan urtzen, baiña onetatik be lurra asko gastatzen dau, batez be lurpeko landareak, zanaori, patata, ta abar.

KAREA: Karea lurraren gozagarri ez ezik, landareen janari gozo be bada. Kare gabeko lurretan landare kaxkarrak izango dira geie-netan. Baiña kontuz erabili bearreko ongar-ria da karea: kare geiegiak ainbeste kalte egin leioke lurrari, orregatik lurra ondo eza-gutu bear da karea bota baiña len. Eundik amar kararri daben lurra kare gitxiegi dau-kee; eundik amarretik ogeira dabeenak, ka-retuta izan leikez; eta ogeitik gora dabenak neiko kare daukee. Ongarri au oso bearrez-koa da lurrarentzat.

(Goiz-Argi-tik)

Ta "ezkonduago bizi" edo "batasun aundia-goan bizi" izateak zer esan gura daben klaru dago: alkar benetan maite izan, bata-bestearen perfeziñoa topau, bestearen nekeak osatu, esate baterako, geuk geure buruaren alde egi-ten doguna beste geure ondoko orren alde be egitea, Jaungoikoaren amodioarren.

Ezkondutakoan pozik geure bizitza igaro nai badogu, ezkon aurretik zera geure begien aurrean euki bear dogu: beste geure lagun orren gorputz dotoreagaitik ezkontzen bagara, laster dotoretasun orregaz kantzau ta beste polilago-ren bat topauko dogula. Geure lagunaren bio-tza nai badogu, biotz orretan edan gura dogu-zan gozotasun orreek laster agortuko direala

ta beste biotz baten billa asiko garala.

Benetako ezkontzan, biak, bakotxa, bere ari-ma bestearen arimeagaz Jaungoikoagan bat eginda, bestearentzat iñoiz agortuko ezlan itur-ri biurtuko dira. Ba, ondo dakigun lez, Jaun-goikoaren laguntza barik laburrak dira geure almenaren zabaterak.

Bata bestearentzat benetan baliotsu, naiz gorputz naiz arimaren bizitzan, izan gura badozue, derrigorrez ezkontzako Sakramentu ori zeuon bizimodu barri orretan bizi bear izango dozue. Orduan biok Jaungoikoagaz bat eginda biziko zarie ta biok alkarregaz, ba Jaungoikoa-ekin bat eginda dagozanak alkarregaz be der-rrigor bat egin bear dabe.



Egia ez da iñoren monopolio. Egia osoa ez baiño guztiok daukogu egiazko zeozer. Egia zati bat. Esplikaziñoa? Erreza: Egia, biribilla dala esan daikegu, konparaziño bidez. Ara, pelota bat lakoa. Konforme? Guretariko bakoitxak alde batetik begiratuten deutsa pelota orreri bai, ta, jakiña, parte axe bakarrik ikusten dau. Axe bakarrik. Beste aldekoa ez, ezin daualako orraitziño. Egia osoa ikusi aal egiteko, pelota guztia ikusteko, ortarako, bakoitxak beste guztien begiak euki bear leukez. Eztok kondiziño makala, e! Ta, lortu lei. Ta ez ain gatx, gaiñera.

Beste guztien begiak euki daiketazala nik? Bai, ba. Zelan? —itaunduko deustazu nunbait—. Ba-daukagu bide bat, bide bakarra, bearbada. **“Pacem in Terris”** enziklikak borondate oneko gizon guztiori eskatuten deuskuna. Ara: alkar-berbaketa.

Eta ain zuzen, auxe da gure artean ia oso-osorik falta dana. Bai gu gizonon artean, ta bai agintari ta menpekoen artean. Bearbada, ez gagoz ondo prepareta. Berbada. Baiña seguru, ez deuskue okasiño asko askorik be emon goikoak. Ezin ukatu ori. Ez deuskue okasiñorik emon prepareta ez gagozalako, eta ez gagoz prepareta okasiñorik ez deuskuelako emon. Zer egingo dogu, ba!

Gizonak, gizon danez ain zuzen, bere deretxoak ta bere eginberrak daukoz. Asko. Orretariko bat auxe: egia-billaketa. Gizonak, edozein gizonak ori, eztauko egia billatuteko deretxoa bakarrik, ez. Obligaziñoa be ba-dauko-ta. Ara **“Pacem in Terris”**ek zer diñoan au dala-ta: “Egia billakerako libertadearen eskubideari, egia ori egunero zabalago ta sakonago billatuteko betebearra jagoko.” Betebearra, ba. Garbi ta argi dakusgu emen auzia.

Eta deretxoa be bai. Eta guztiok diñogunez, xedea —azkena— lortuteko deretxoa daukonari, medioak ipiñi bear jakozala, atara orain kontuak. Eta medio bat —bearrezkoa, derriorrezkoa— alkar-berbaketa da, dudarik barik. Dialogoa. Ta ortarako entzuten ikastea dogu bearrezko. Gatxa da, ori bai, baiña zer egingo dogu, ba, bearrezkoa da-ta...

Guztiok daukogu entzunak izateko eskubidea. Goikoak ta beekoak, ugazabak ta biergiñak. Agintariak ta menpekoak. Onekin demokrazia ulertu gura badozue, ulertu. Or konpon. Ori zeuen kontura. Beintzat, ori bearrezkoa dogu dialogoa euki daigun. Ostantzean ako egia izango litzaiken bein HOAC-ko **Boletin**-ek iñoana:

“Gizartean nonork egia espresatu ezin daikenean eta edozein oker edo guzur askatasunez ezin daitekenean konbatitu, orduan gauzak ezin dira ondo joan.”